

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

DURANGO

**2013ko Kudeaketa plana
behin-betikoa**

Helburu nagusia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Aurrekontua
391.640,00 €

Gastua
382.257,02 €

IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA – HEA

Aurrekontua	Gastua
100.600,00 €	101.960,05 €

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	1. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EUSKARAZ IZATEA
ESTRATEGIA	1.2. Dirulaguntzen bidez
EKINTZA:	1.2.1. Euskara sustatzeko laguntzak elkarte eta ikastetxeei

Xede taldeak	Eskola ume eta gazteak Eskolak, elkarteak, klubak	
Helburua	Eskolaz kanpo ume eta gazteei zuzentzen zaizkien ekintzak euskaraz izan daitezen sus-tatu	
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>“Euskara sustatzeko diru-laguntza” deialdia egiten du Udalak. Dirulaguntza hauen sub-jektu onuradunak honako hauek izan daitezke: irabazi asmorik gabeko Durangoko per-sona fisikoak, elkarteak, ikastetxeak eta entitateak, baldin eta deialdi honetan zehazten diren moduko ekimenak burutzen badituzte.</p> <p>Dirulaguntza hauen xede diren programek eta jarduerak euskararen normalizazioari zu-zendutakoak izan behar dute, eta urteko programak nahiz ekintza puntualak izan dai-tezke, beti ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, Udalak onartuta duen 2013-2017 epealdirako Plan Estrategikoak jasotzen diren esparruekin loturiko ekimenak garatzen badituzte: Familia transmisioa, Euskalduntzea eta alfabetatzea, Irakaskuntza, Merkataritza eta ostalaritza, Aisia eta kirola, Immigrazioa, Kulturgintza eta Hedabideak.</p>	
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua	
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Aurkezturiko proiektuak Ikastetxe parte-hartzaileak	Emaitza 8 ikastetxe (Durangoko guztiak)
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:	

Aurrekontua	*	Gastua	16.817,33	Egoera	Eginda
--------------------	---	---------------	------------------	---------------	---------------

Balantze kualitatiboa	ENTITATEA		Diru-laguntza 2013	
		Maristak San Jose		184,80
		San Jose Jesuitak		8.316,00
		San Antonio – S. Rita Ikast.		348,32
		Zabalarra Bitaño		624,13
		Landakoko G.E.		2.508,00
		Sagrado Corazon		1.916,54
		Frai Juan Zumarraga		1.842,06
		Ibaizabal Ikastola		1.077,48
		GUZTIRA		16.817,33

*“Euskara sustatzeko diru-laguntza” deialdi bakarra egiten du Udalak. Aurten 38.000 euro izan dira. Aurrekontua KULTURA esparruko “3.3.1. Euskara sustatzeko laguntzak elkarte eta ikastetxeei” ekintzan sartuta dago.

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. HELDUAK EUSKALDUNTZEA
ESTRATEGIA	2.1. Euskara ikasteko motibazioan eragitea eta erraztasunak eskaintzea
EKINTZA:	2.1.1. Euskara ikasteagatik bekak

Xede taldeak	17 urtetik gorako durangarrak		
Helburua	Herriko euskaldun kopurua handitzea		
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>Durango Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari, honi esker, Durango Uriko euskaldunen portzentaia handituko delako. Horrexegatik hain zuzen, bi eratarata ematen dizkie diru-laguntzak euskara ikasten ari diren durangarrei:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurrekontu partida bat ezartzen du ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara doazen Durango biztanleei bekak emateko. 2. Udal Euskaltegiaren bidezko bekak. <p>Udalaren deialdiaren xedea ondorengo hau da: ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Durango biztanleentzako bekak emateko baldintzak arautzea, norgehiagoka erregimenean.</p> <p>Dirulaguntza hauen onuradun izango dira Durango erroldatuta egon eta aipatutako euskara ikastaroak egiten ari direnak euskaltegi pribatu eta barnetegi homologatuetan. Ez zaie dirulaguntzarik emango euskaltegi publikoetan ikastaroak egin dituztenei (Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Udal Euskaltegietan) edota IRALE, HAE Eren bidezko ikastaroak egiten dituztenei.</p> <p>Matrikula-kostuaren %50a laguntzen da diruz, beti ere, ikasleak asistentziaren %80a ziurtatzen badu.</p>		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua Udal Euskaltegia		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena	Emaitza	
		Udaleko Euskara Zerbitzua: 23 diru-laguntza eskari, 6.640,42 € Udal Euskaltegia: 11.205,42 €	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Diru-laguntza deialdia egin Iraila: Urria: ebazpena eman Abendua:		
Aurrekontua	22.000	Gastua	17.845,84
		Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa			

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. HELDUAK EUSKALDUNTZEA
ESTRATEGIA	2.1. Euskara ikasteko motibazioan eragitea eta erraztasunak eskaintzea
EKINTZA:	2.1.2. Berbalagun

Xede taldeak	Gazte eta heldu durangarrak			
Helburua	Euskara praktikatzeko guneak sortzea eta euskaldunen sarea zabaltzea.			
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>Berbalagun, mintzapraktika-programa den heinean, elkarlanetik abiatutako egitasmoa da. Egitasmo honetako eragile nagusiak Durangoko euskaltegiak, Hizkuntza Eskola, Berbaro euskara elkarteak eta Administrazioa dira; hau da, euskararen ezagutza landu, euskararen erabilera bultzatu eta herri-agintearen babesla eskaini ahal duten erakundeak.</p> <p>Berbalagun programak, hainbat egoera eta jarduera sortuz eta antolatuz, euskara praktikatzeko eta euskaraz bizi ahal izateko aukera eskaintzen dio herritarrari. Gainera, herriko euskaldunek elkar ezagutzea eta herritarren euskara-maila hobetzea ahalbidetzen duenez gero, euskal komunitatea trinkotzeko tresna garrantzitsua da Berbalagun.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Berbalagunek borondatezko izaera du eta proiektu irekia da (euskara praktikatzea, euskaraz bizitzea edota euskaraz bizi nahi duenari laguntzea helburua duen durangar orok har dezake parte Berbalagunen). ● Berbalagunen helburu nagusia "euskara sendatzea eta sendotzea da"; hau da, euskarak kalean duen presentzia areagotu, erabilera-esparruak zabaltzea eta euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak harremanetan jartzea. 			
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua eta Mankomunitatea Udal Euskaltegia, AEK, Hizkuntza Eskola eta Berbaro			
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena 100 lagun 12 taldetan.	Emaitza 103 lagun 13 taldetan.		
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:			
Aurrekontua	10.000	Gastua	10.000	Egoera Eginda
Balantze kualitatiboa	<ul style="list-style-type: none"> → Aurtengo matrikulazio kanpainaren amaieran 107 lagunek eman dute izena. → Batzorde eragilea AEK-k, Udal Euskaltegiak, Berbaro elkarteak, Hizkuntza Eskolak, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta egitasmoaren dinamizatzaileak osatzen dute hasiera-hasieratik eta Berbalagun egitasmoarekiko atxikimendua handia da. → Durangoko Udala ez ezik Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa (Mankomunitatea) ere proiektuaren babesle baitugu. → 9 bidelagun izan dira aurrean. Talde guztietan bidelaguna bermatuta egon ez denez, dinamizatzaileek hartu dute euren gain ardura hori eta taldeetako partaide ibili dira. → Bloga ekintza osagarrien berri emateko erabili izan dugu. Bertan informazioa sartu izan dugu eta loturak. → Ekintza osagarriak Durangon: Kultur lehiaketa (250 galdetegi); Xabogintza tailerra urtarrilean; Sagardotegira irteera martxoan; ikasturtearen amaieran triki-pintxo-potea. → Ekintza osagarriak Durangaldeko herrietan: Artile tailerra; ardi esnez egindako post-trek; ipuin kontalaria; bolo txapelketa. 			

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. HELDUAK EUSKALDUNTZEA
ESTRATEGIA	2.1. Euskara ikasteko motibazioan eragitea eta erraztasunak eskaintzea
EKINTZA:	2.1.3. Ikastaro bereziak antolatu: adin nagusikoak, zinegotziak...

Xede taldeak	Gazte eta heldu durangarrak		
Helburua	Helduak euskara ikastea talde naturaletan zaletasuna, adina, lanbidea... kontuan hartuta		
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatzen ditu Udalak herriko edo eskualdeko euskaltegiekin eta euskara elkarteekin elkarlanean: galdutako trebetasunak berreskuratzeko edo birziklatzeko; euskarazko terminologia lantzeko; mintzamena lantzeko; jendaurrean hitz egiteko; herri hizkeraz; hitanoaz; motibazioa lantzeko... Honako giza taldeei zuzenduta daude: begirale, kirol entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretako arduradun, irakasle, euskaltegi-tako irakasle, komunikabideetako esatari, merkata-ri, ostalari, udaltzain...		
	Ikastaro bereziak antolatzen dira sektoreka eta, beti ere, sektoreetako herriko eragileekin batera eta beharrei egokituta		
Arduraduna, aliantzak...	Udal Euskaltegia, Euskara Zerbitzua AEK, Udaleko Adin Nagusien saila eta Berbaro		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena	Emaitza	
	Guraso taldeak ikastetxeetan	3 talde ikastetxeetan: Landako, Jesuitak eta Maristak.	
	Kirol entrenatzaileentzako ikastaroak	Ez da egin	
	Adin nagusientzako ikastaroak	3 talde adin nagusienak	
	Zinegotziak	3 zinegotzi	
	Zergatik ez? tailerra	9 ikastaro: U.Euskaltegiko eta Abarrak AEK-ko ikasleak, herriko elkarteak, ikastetxeak	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza:		
	Iraila:		
	Urria:		
	Abendua:		
Aurrekontua	5.000	Gastua	10.114,08
		Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa			

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA			
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. HELDUAK EUSKALDUNTZEA			
ESTRATEGIA	2.1. Euskara ikasteko motibazioan eragitea eta erraztasunak eskaintzea			
EKINTZA:	2.1.4. Euskara ikasteko gida: euskaragida.com			
Xede taldeak	Gazte eta heldu durangarrak			
Helburua	Euskara ikasteko eta praktikatzeko eskaintzaren berri eman			
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	Amankomunazgoak, "Urratsez urrats helmugaraino", sloganpean, euskaragida.com web gunea argitaratu, landu eta kudeatzen du Durangaldeko herritarrei eskualdean euskara ikasi eta praktikatzeko ditugun aukeren berri emateko asmoarekin. 7 hizkuntzan dago. Kartelak eta esku-orriak ere argitaratzen dira.			
Arduraduna, aliantzak...	DMA, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa Euskara Zerbitzua, Udal Euskaltegia, AEK, Hizkuntza Eskola			
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena	Emaitza		
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Uztaila: datuak batu, kartelak eta esku-orriak enkargatu. Iraila: datuak argitaratu, kartelak eta esku-orriak banatu Urria: Abendua:			
Aurrekontua		Gastua	Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa	http://www.euskaragida.com/ dago euskara ikasi eta praktikatzeko gida. Urtero egiten dira egokitzapenak: eskaintza, aukerak...			

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATU
ESTRATEGIA	3.1. Jaioberrien eta 1-6 urte bitarteko umeen gurasoak sentsibilizatu
EKINTZA:	3.1.1 eta 3.1.2. Esadazu euskaraz / Eman giltza

Xede taldeak	Guraso durangarrak		
Helburua	Haurrei, jaiotzetik, euskara erakustearen garrantziaz sentiberatu gurasoak		
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>“Eman giltza - ¡Háblale, escúchale!” leloa daraman kanpainaren helburua, euskara belau-naldiz belaualdi transmititzeak duen garrantzia nabarmentzea da. <i>Eman giltza</i> egitasmoaren ardatza gurasoak dira eta parte hartze zuzena izango dute proiektuaren garape-nean. Web guneari eman zaio indarra eta garrantzia, horrek informazio gehiago, baliabi-deak zein beste edozein kontu sartzeko aukera ematen duelako. Emaizta www.emangiltza.com web gunean dago.</p> <p>Hartara, gurasoek umea udal-eroldan erregistratzen dutenean Udalak oparitxo bat egiten die gurasoei: telazko poltsatxo bat, adurretakoa eta Ku-Ku liburuxka eta CDa. Opariaz batera, zenbait iradokizun eta web guneari buruzko esku-orriak ere ematen zaizkie.</p>		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua Alkarbide		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena 300 jaioberrien familia hartzaile ETBko spota	Emaizta 325 familiak jaso dute ETB2ko spota urrian eta azaroan	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		
Aurrekontua	3.600	Gastua 3.917,88	Egoera Eginda
Balantze kualitatiboa	<p>Kanpaina Bizkaiko 10.000 familia inguruk jaso dute eta, Alkarbide bilguneak koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta, orain dela bi urte martxan hasi zen egitasmo hau aurten ere 39 udalerritan eta 2 mankomunitatetan zabaldu da. Horretarako, ume jaioberriak dituzten gurasoek umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak batzen dituen diptikoa jaso dute etxean eta euren kezka eta beldurrak uxatzeko prestatu den webgunearen berri ere izango dute.</p> <p>Durangon familiei ematen zaizkien euskarriak: informazio esku-orria, adur-zapia, askari-poltsa eta KU-KU liburuxka eta CDa Liburuxka horretan, besteak beste, abestiak, euskarazko oinarrizko hitzak eta esamoldeak daude jasota. Gainera, aurten ikasturte hasierarekin batera, ETB2n egitasmoa ezagutzera emateko eta transmisioa sustatzeko iragarkia ere ikusi ahal izan da.</p>		

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATU
ESTRATEGIA	3.2. DBHko ikasleak euskarazko ereduera bideratu
EKINTZA:	3.2.1. "Nahi dudalako" egitasmoa

Xede taldeak	DBH 3/4 ikasleak		
Helburua	DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek euskaraz ikasten jarraitu		
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	Bigarren hezkuntza amaitzean dauden gazteengan eragin Batxilergoan, Lanbide Heziketan edota bestelako ikastetan euskarazko ereduera ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko. Alkarbideren bidez egiten da kanpaina. Euskarri garrantzitsuena nahidudalako.com web gunea da.		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua Alkarbide		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena	Emaitza	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		
Aurrekontua	Gastua	Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa	http://nahidudalako.com/ web gunean ematen zaie gazte eta gurasoei aukeren berri ikasketak euskaraz egin dezaten.		

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATU
ESTRATEGIA	3.3. Ume eta gazteentzako aisialdia euskaraz eskaini
EKINTZA:	3.3.1. Ume eta gazteei zuzendutako ekintzak: Uda Topera, udal ludoteka, udalekuak, ikuskizunak

Xede taldeak	Ume eta gazteak		
Helburua	Ume eta gazteentzako aisialdi ekintzak euskaraz eman.		
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	Uda Topera: udako hiri kanpamentuak Euskara Zine aretoetara (3.2.3 ekintza, Kultura esparruan dago sartuta) Gabonetako ekintzak: izotz pista (ikastaroak) Udako irakur gunea "Bibliopiszina" (3.2.6 ekintza, Kultura esparruan dago sartuta) Korrika txikia		
Arduraduna, aliantzak...	Gazteria eta Kultura Sailak, Euskara Zerbitzua		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Uda Topera: 300 ume/gazte (3 eta 14 urte bitartekoak) Izotz Pista: 400 ume/gazte Korrika txikia: 900 ume, herriko 6 ikastetxeetakoak (LH 4/5/6).	Emaitza Uda Topera: udako hiri kanpamentuak Guztira: 282 ume/gazte honela banatuta: Txiki Txoko (3-5 urte):157 Hiri kanpamendua (6-10 urte):109 Abentura: (11-14 urte):16 Izotz Pistako ikastaroak: 475 ume/gazte Korrika Txikia: 900 ume herriko 6 ikastetxeetakoak (LH 4/5/6).	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		

Aurrekontua	60.000	Gastua	43.264,92	Egoera	Eginda
--------------------	---------------	---------------	------------------	---------------	---------------

Balantze kualitatiboa	<p>Gastuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Uda Topera: <u>39.759,53 €</u> → Gabonetako ekintzak: Izotz Pistako ikastaroak: <u>1.800 €</u> Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra zabalik egon da izotz gunea. Patinatze ikastaroak, umeei zuzendutakoak dira. Hiru talde bereizten dira: 4-7 urte; 8-14 urte eta 15 urtetik gorakoak. Guztira, 475 gaztek hartu dituzte ikastaroak. → Korrika txikia: <u>1.705,39 €</u> 2013ko martxoaren 19an izan da. 14:30ean hasi eta 16:30ean amaitu, Landako gunean. Aurretik ikastetxeetan hainbat ekintza egiten dituzte Korrikaren inguruan: tailerrak, ariketak... Parte hartzaileak: LHko herriko ikastetxeak (Landako, Zabalarra, Kurutziaga, Jesuitak, S.Antonio-S.Rita eta Nevers). LH 4,5 eta 6. mailako 900 ikasleek parte hartu dute. Korrikaldia egin eta gero, muralak margotu dituzte Landako gunean. → Euskara Zine aretoetara (3.2.3 ekintza, Kultura esparruan dago sartuta) → Udako irakur gunea "Bibliopiszina" (3.2.6 ekintza, Kultura esparruan dago sartuta) 				
------------------------------	--	--	--	--	--

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATU
ESTRATEGIA	3.3. Ume eta gazteentzako aisialdia euskaraz eskaini
EKINTZA:	3.3.2. Aisialdiko begirale izateko ikastaroa

Xede taldeak	Gazteak	
Helburua	Ume eta gazteekin lan egiteko gai izango diren begiraleak prestatu	
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>Ikastaroaren helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Ume eta gazteekin lan egiteko gai izango diren begiraleak sortzea. → Astialdiko heziketan gogoeta eta marko teoriko baten ezagupenari hasiera ematea. → Ikaslea edozein ekintza programatzeko eta horren inguruko hausnarketa eta auto-kritikarako prestatzea. <p>Ordu Kopurua: 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktiko. Egutegia: urritik maiatzera bi ikasturtetan zehar (12/13 eta 13/14), asteburuetan banatuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> → 1. urtean: 10 asteburu. 2 aterpetxe batean, besteak Durangon. Urritik maiatzera. → 2. urtean: 7 asteburu. 2 aterpetxe batean eta beste bat kanpin dendetan, gainera-koak Durangon. Urritik maiatzera. <p>Lantzen diren gaien zerrenda:</p> <ul style="list-style-type: none"> → 1. urtean: Talde dinamika I eta II, zehar lerroak: hezkidetzeta eta kulturartekotasuna, aisia eta astia, heziketa astialdian, begiralearen tipologia, euskal jolasak, inguruaren azterketa eta programazioa. → 2. urtean: udalekuak eta kanpamenduak, lehen sorospenak, sexualitatea, EHan hez-ten, psikologia ebolutiboa, teknika bat eta naturaren pedagogia. → Aurkezpenak, tutoretzak eta azken ebaluazioak bi urtetan zehar. 	
Arduraduna, aliantzak...	DMA, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa Euskara Zerbitzua	
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Ikastaro 2: begirale titulua eta zuzenda-ria	Eraitza 2ak egin dira: Begirale titulua: 15 ikasle Zuzendari titulua: 14 ikasle
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia		

Aurrekontua	Gastua	Egoera	Eginda	
Balantze kualitatiboa	<p>Begirale titulua</p> <p>EDUKIAK: interesgarriak, beharrezkoak eta praktikan jartzeko modukoak.</p> <p>HIZLARIAK: ondo bete dute euren lana.</p> <p>METODOLOGIAK: parte hartzailea eta dinamikoa, gaiak ulertzeko erraztasunak.</p> <p>ANTOLAKUNTZA OROKORRA: materialaren aldetik, gutxi erabili dugu. Lekua: kanpoaldea oso ondo, barrualdea ez hain ondo.</p> <p>KOORDINATZAILEA: Orokorrean ondo, taldea gidatzen du, dinamikoa, hausnarketa bideratu ditu ikasleak.</p> <p>TALDEA: 15 ikasle</p> <p>ASISTENTZIA: oso ona.</p> <p>PUNTUALITATEA: oso puntualak.</p> <p>PARTE HARTZEA: hasieran baxua gero hobetu da.</p>	<p>Zuzendari titulua</p> <p>GAIK, EDUKIAK ETA HIZLARIAK: lehen blokea garrantzitsua da taldea osatzeko. Bigarren eta hirugarrenean eduki batzuk errepikatzen dira. Hizlariak ondo baloratuak. Beste bloke bat sartzeko proposamena: botere harremanen aurrean nola jokatu.</p> <p>METODOLOGIAK: hausnarketa eta eztabaidarako oso garrantzitsuak. Taldearen heldutasun prozesuan lagundu dute.</p> <p>ANTOLAKUNTZA: oso ona. Koordinatzaileak lana asko erraztu du.</p> <p>TALDEA: 14 ikasle. Asistentzia primera-koa. Parte hartze orokorra ere oso ona</p> <p>ESKOLA: Ez da harreman handirik egon eskolarekin, taldeak uste du inplikazioa eskolarekin altuagoa izan daitekeela</p>		

ESPARRUA	IRAKASKUNTZA - TRANSMISIOA - HEA
HELBURU ESTRATEGIKOA	3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATU
ESTRATEGIA	3.3. Ume eta gazteentzako aisialdia euskaraz eskaini
EKINTZA:	3.3.3. Jolas dinamizazioak umeen guneetan (Zabu-zibu programa)

Xede taldeak	Umeak								
Helburua	Umeak eta nagusiak (guraso, aitona-amonak...) elkarrekin euskaraz jolasteko dinamikak irakatsi/ikasi								
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>Azken urteetan haur eta gazteen artean euskararen ezagutza asko handitu bada ere, gauza jakina da erabilera ez dela proportzio berean handitu. Jasotako datuen arabera, Durangaldeko familien %61,75 gaztelaniaz mintzo da etxean. Arrazoi ugari egon daitezke honetarako: guraso euskaldunek, sarritan, ez dute behar adina baliabide seme-alabekin euskaraz jolas egiteko; haur eta gazte askok ez dute bizitasunik aurkitzen euskaraz lagunartean komunikatzeko garaian, euskaraz aritzeko ohitura falta eta abar.</p> <p>Hau guztia kontuan hartuta, Mankomunitateko euskara zerbitzuak eta berau osatzen duen batzorde teknikoak arazo hauei aurre egiteko programa bat abiatzea erabaki zuen: Zabu-zibu jolas dinamizazioak parkeetan. Egitasmo honi esker, euskararen familia transmisioa jolasaren bidez landuko da, modu desberdinetan. Izan ere, hizkuntzaren transmisioa ez da soilik gurasoengandik umeengana ematen ia denok uste dugun bezala, hizkuntza etengabe transmititzen ari gara: gurasoek umei eta alderantziz, umeek beste umei, gurasoek beste guraso batzuei... Ekintza ludiko hauen bitartez, euskararen transmisioa indartu nahi du Mankomunitateak, guraso zein umei horretarako baliabi-deak emanez.</p>								
Arduraduna, aliantzak...	DMA, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa Euskara Zerbitzua								
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	<table border="0"> <tr> <td>Aurreikuspena</td> <td>Emaitza</td> </tr> <tr> <td></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Maiatza, DURANGO: 6 saio udaberrian: 4 Ezkurdi, 1 Tabira, 2 Landako gunea. Saio bi bertan behera (ez zen inor agertu), bes-teetan jende gutxi. Uda ostean 8 saio, arrakasta: 6 saio eskoletan. Eskola guztietan parte hartzea handia izan zen: 20-30 pertsona saioko. Azken biak Ezkurdin. Txantxarien jaia: Urriaren 11n: Ezkurdi beteta. </td> </tr> </table>	Aurreikuspena	Emaitza		<ul style="list-style-type: none"> Maiatza, DURANGO: 6 saio udaberrian: 4 Ezkurdi, 1 Tabira, 2 Landako gunea. Saio bi bertan behera (ez zen inor agertu), bes-teetan jende gutxi. Uda ostean 8 saio, arrakasta: 6 saio eskoletan. Eskola guztietan parte hartzea handia izan zen: 20-30 pertsona saioko. Azken biak Ezkurdin. Txantxarien jaia: Urriaren 11n: Ezkurdi beteta. 				
Aurreikuspena	Emaitza								
	<ul style="list-style-type: none"> Maiatza, DURANGO: 6 saio udaberrian: 4 Ezkurdi, 1 Tabira, 2 Landako gunea. Saio bi bertan behera (ez zen inor agertu), bes-teetan jende gutxi. Uda ostean 8 saio, arrakasta: 6 saio eskoletan. Eskola guztietan parte hartzea handia izan zen: 20-30 pertsona saioko. Azken biak Ezkurdin. Txantxarien jaia: Urriaren 11n: Ezkurdi beteta. 								
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:								
Aurrekontua	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>Gastua</th> <th>Egoera</th> <th>Eginda</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Balantze kualitatiboa</td> <td colspan="3"> Durango. Udaberriko saioak: kasu batzuetan ere eguraldiak eragin zuzena izan du, gerturatu garen lekuetan inor ez zegoelarik. Ikastetxeetan zirkularrak banatu dira eta kaleetan kartelak jarri baina hau, dirudenez, ez da nahikoa izan. Zailtasun handiak izan ditugu orokorrean saio hauek aurrera eraman ahal izateko, kasu askotan 3, 4 edo 5 gurasorekin bakarrik aritu garelarik. Udazkeneoak: Udaberriko emaitza ikusi ondoren aldaketa batzuk proposatu genituen. Ikastetxe bakoitzean saio bat egitea proposatu genuen, eta amaitzean guztiak elkarrekin Ezkurdi plazan saio bat. Ikastetxeetan izan dugun erantzuna ezin hobea izan da. Badi-rudi, beraien ingurura gerturatzeak segurtasuna eman diela eta informazioa ere gehiago zabaldu dela. Guraso askok hartu dute parte: 20-30 pertsona saio bakoitzean. </td> </tr> </tbody> </table>		Gastua	Egoera	Eginda	Balantze kualitatiboa	Durango. Udaberriko saioak: kasu batzuetan ere eguraldiak eragin zuzena izan du, gerturatu garen lekuetan inor ez zegoelarik. Ikastetxeetan zirkularrak banatu dira eta kaleetan kartelak jarri baina hau, dirudenez, ez da nahikoa izan. Zailtasun handiak izan ditugu orokorrean saio hauek aurrera eraman ahal izateko, kasu askotan 3, 4 edo 5 gurasorekin bakarrik aritu garelarik. Udazkeneoak: Udaberriko emaitza ikusi ondoren aldaketa batzuk proposatu genituen. Ikastetxe bakoitzean saio bat egitea proposatu genuen, eta amaitzean guztiak elkarrekin Ezkurdi plazan saio bat. Ikastetxeetan izan dugun erantzuna ezin hobea izan da. Badi-rudi, beraien ingurura gerturatzeak segurtasuna eman diela eta informazioa ere gehiago zabaldu dela. Guraso askok hartu dute parte: 20-30 pertsona saio bakoitzean.		
	Gastua	Egoera	Eginda						
Balantze kualitatiboa	Durango. Udaberriko saioak: kasu batzuetan ere eguraldiak eragin zuzena izan du, gerturatu garen lekuetan inor ez zegoelarik. Ikastetxeetan zirkularrak banatu dira eta kaleetan kartelak jarri baina hau, dirudenez, ez da nahikoa izan. Zailtasun handiak izan ditugu orokorrean saio hauek aurrera eraman ahal izateko, kasu askotan 3, 4 edo 5 gurasorekin bakarrik aritu garelarik. Udazkeneoak: Udaberriko emaitza ikusi ondoren aldaketa batzuk proposatu genituen. Ikastetxe bakoitzean saio bat egitea proposatu genuen, eta amaitzean guztiak elkarrekin Ezkurdi plazan saio bat. Ikastetxeetan izan dugun erantzuna ezin hobea izan da. Badi-rudi, beraien ingurura gerturatzeak segurtasuna eman diela eta informazioa ere gehiago zabaldu dela. Guraso askok hartu dute parte: 20-30 pertsona saio bakoitzean.								

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Aurrekontua
49.340,00 €

Gastua
52.633,16 €

ESPARRUA	MERKATARITZA ETA OSTALARITZA
HELBURU ESTRATEGIKOA	1. MERKATARITZA ETA OSTALARITZAN AHOZKO ERABILERA HANDITU
ESTRATEGIA	1.1. Herriko euskara elkarteen bidez
EKINTZA:	1.1.1. "Salerosketa be euskeraz" ekimena

Xede taldeak	Merkatariak
Helburua	Salerosketak egitean euskararen ahozko erabilera bultzatu merkataritzan
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	Ohikoa da gure merkataritza guneetan sartzean lehen berba gaztelaniaz entzutea, nahiz eta sarritan merkatariak zein erosleak euskeraz komunikatzeko gaitasuna izan. Ekimen honen bidez, erosketa tratua edota harremana euskara hutsean izaten ahalegina egiten duten bezeroari zozketa batean parte hartzeko txartela ematen dio merkatariak. Hile birik behin iPad bat zozkatuko da. ITG taldeak antolaturiko ekimena da. Udalak diru laguntza emateaz gain, sustapen lanetan ere parte hartzen du.
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua ITG taldea, Dendak Bai merkatarien elkarteak
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Eraitza
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:
Aurrekontua	2.500 Gastua 3.017,38 Egoera Eginda
Balantze kualitatiboa	Balantze benetan positiboa lehen urtean: → 144 merkatalgunek bat egin dute ekimenarekin. Euskara Zerbitzutik 45 merkatariri banatu zaizkie txartelak. → 230.000 txartel baino gehiago banatu dituzte. → 6 tableta elektronikoko oparitu dituzte.

ESPARRUA	MERKATARITZA ETA OSTALARITZA
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO HIZKUNTZA PAISAIA EUSKARAREN ERABILERA HANDITU
ESTRATEGIA	2.1. Udalak laguntza tekniko eta diruzkoa emanez
EKINTZA:	2.1.1. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eman

Xede taldeak	Merkatari eta ostalariak																						
Helburua	Merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera handitu																						
Deskribapena (prozedura, berri-tasuna...)	<p>“Guk Euskeraz” egitasmoa du abian Udalak helburu hau betetzeko. 1997an hasi zen Durangoko Udala Merkataritza arloan euskararen erabilera sustatzeko lehen urratsak ematen. Harrezkero, zenbait urrats eman ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> → 2003an egitasmo berri bat jarri genuen abian: Merkataritzako errotuluak euskaratzeko diru-laguntzak. Enpresa, denda, taberna edo entitate batera sartzean, errotulazioak garrantzia du bezeroak erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko orduan. → Web guneak euskaraz jartzen dituztenei diru-laguntzak ematen zaizkie. Honekin ere, idatzizko hizkuntza euskara bermatzeko pausuak ematea dugu xede. → Guk Euskeraz, erabilera areagotzeko kanpaina berria. Alde bi izango ditu: Euskararen erabilera bisuala (hizkuntza paisaia) gehitzea eta ahozkoa erabilera bultzatzea. Irudi berria sortuko da eta, banan-banan, herriko establezimendu guztiak bisitatuko ditugu Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eta euskararen erabilera areagotzeko asmoaren berri emateko. Establezimenduaren hizkuntza egoera bilduko ditugu fitxa baten bidez. 																						
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua																						
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	<table border="0"> <tr> <td>Aurreikuspena</td> <td>Emaitza</td> </tr> <tr> <td>Emandako zerbitzua</td> <td>Emandako zerbitzua (itzulpenak):</td> </tr> <tr> <td>Zerbitzu hartzaileak</td> <td>EUSKARRIAK GUZTIRA 17</td> </tr> <tr> <td></td> <td>BARRUKO ERROTULUAK 1 OHARRAK / JAKINARAZPENAK 4</td> </tr> <tr> <td></td> <td>ERROTULUAK 2 PRENTSA OHARRAK 1</td> </tr> <tr> <td></td> <td>ESALDIK 3 PUBLIZITATEA ESKUORRIA 1</td> </tr> <tr> <td></td> <td>GUTUNAK 1 PUBLIZITATEA KOMUNIKABIDEAK 1</td> </tr> <tr> <td></td> <td>KARTELAK 3</td> </tr> <tr> <td></td> <td>KARAKTEREAK GUZTIRA 7.204</td> </tr> <tr> <td></td> <td>Hartzaileak: 11 komertzio</td> </tr> <tr> <td></td> <td>Kanpaina berriko hartzaileak: 80 komertzio</td> </tr> </table>	Aurreikuspena	Emaitza	Emandako zerbitzua	Emandako zerbitzua (itzulpenak):	Zerbitzu hartzaileak	EUSKARRIAK GUZTIRA 17		BARRUKO ERROTULUAK 1 OHARRAK / JAKINARAZPENAK 4		ERROTULUAK 2 PRENTSA OHARRAK 1		ESALDIK 3 PUBLIZITATEA ESKUORRIA 1		GUTUNAK 1 PUBLIZITATEA KOMUNIKABIDEAK 1		KARTELAK 3		KARAKTEREAK GUZTIRA 7.204		Hartzaileak: 11 komertzio		Kanpaina berriko hartzaileak: 80 komertzio
Aurreikuspena	Emaitza																						
Emandako zerbitzua	Emandako zerbitzua (itzulpenak):																						
Zerbitzu hartzaileak	EUSKARRIAK GUZTIRA 17																						
	BARRUKO ERROTULUAK 1 OHARRAK / JAKINARAZPENAK 4																						
	ERROTULUAK 2 PRENTSA OHARRAK 1																						
	ESALDIK 3 PUBLIZITATEA ESKUORRIA 1																						
	GUTUNAK 1 PUBLIZITATEA KOMUNIKABIDEAK 1																						
	KARTELAK 3																						
	KARAKTEREAK GUZTIRA 7.204																						
	Hartzaileak: 11 komertzio																						
	Kanpaina berriko hartzaileak: 80 komertzio																						
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Urte osoko egitasmoa da, beraz zerbitzua urtean zehar ematen da eten barik. Kanpaina berria irailean hasi zen.																						

Aurrekontua	*33.000	Gastua	* 42.392,82	Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa	Ekintzak			Betetze maila	
	Elkarte, merkatariei zerbitzu tekniko eman: itzulpenak, zuzenketak, aholkularitza...			Eten barik ematen da.	
	“Merkealdia” kanpainak egin			Euskara Sailak bultzatuta, merkatarien elkar-teak bere gain hartu badu.	
	“Euskara eskaintzarik onena” CDa merkatariei banatu. Hiztegia, dokumentu ereduak eta bestelako lagungarriak batzen ditu.			Eskatu dutenei eman zaie.	
	Guk Euskeraz kanpaina berria: merkatariei bisitak egin Euskara Zerbitzuaren berri emateko eta hizkuntza paisaia aldatzeko			Kanpaina irailaren erdi aldera hasi zen. Urtero egiteko asmoa dago, intentsitate txikiagoz. Gastua: 8.936,32 €	
	Errotuluak euskaraz ipintzeko kanpainaren jarraipena egin			Egin da	
“Ongi Etorri” karpeta bidali komertzio zabaldu behar dutenei. Gure zerbitzuaren berri eman.			HAZ (SAC)en ematen zaie establezimendu berria zabaltzeko eskaria egiten dutenei		
* Zerbitzua emateko Udalak lan-hitzarmena du Berbaro elkartearekin.					

ESPARRUA	MERKATARITZA ETA OSTALARITZA
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO HIZKUNTZA PAISAIAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU
ESTRATEGIA	2.1. Udalak laguntza teknikoa eta diruzkoa emanez
EKINTZA:	2.1.2. Diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeagatik

Xede taldeak	Merkatari eta ostalariak			
Helburua	Merkataritza eta ostalaritzan ageriko euskararen erabilera handitu			
Deskribapena (prozedura, berritasuna...)	<p>Durangoko Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio erakunde publiko eta pribatuaren kanpoko errotulazioa. Honela, Durangoko Udalak kanpoko errotuluak (eta web guneak) euskaraz jartzen dutenei dirulaguntzak emateko deialdia arautu du. Honekin euskara idatziaren erabilpena esparru pribatura zabaldu nahi da, euskara idatziaren presentzia indartzeko diskriminazio positiboaren irizpideak aintzat hartuta eta, honela, gure herriko hizkuntza paisaia euskaldunago bihurtzeko.</p> <p>2003an ipini zen abian egitasmo hau. Honekin, beste urrats bat eman dugu euskararen normalizazioan. Hizkuntza paisaiak eragin handia du hizkuntzaren normalizazioan. Enpresa, denda, taberna edo entitate batera sartzean, errotulazioak berebiziko garrantzia du bezeroak erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko orduan. Beste alde batetik, ume eta gazteak ohitu behar ditugu euskaraz ikusten hizkuntza paisaia den guztian: kartelak, seinaleak, errotuluak, eta abar.</p> <p>Kanpoko errotuluak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzen subjektu onuradunak izan daitezke: euren establezimendua Durangon kokatuta daukaten merkatariak eta ostalariak eta, halaber, udalerrri mailako elkarteak. Errotulazioa diogunean hauxe hartzen da kontuan: lokalaren kanpoaldean jarritakoa eta, halaber, toldoetan eta ibilgailu komertzialetan jarritakoa</p>			
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua			
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena 10 eskari	Emaitza Errotuluak: 8 komertzio diruz lagunduta Web guneak: 6 entitate diruz lagunduta		
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatz-ekaina: deialdia prestatu eta argitaratu Iraila: Urria: Abendua:			
Aurrekontua	5.000	Gastua	7.222,96	
		Egoera	Eginda	
Balantze kualitatiboa	Errotuluak		Web guneak	
	Onuraduna	Diru-laguntza	Onuraduna	Diru-laguntza
	Atxarte mendiko denda	574,75	Atxarte mendiko denda	301,78
	Naia Gorroño Hortz klinika	800,00	Kurutziaga Ikastola	500,00
	North Rainbow Coop.	592,13	Vicente Zabala elkarte	453,75
	Kopilán	290,40	D3 Arquitectos	500,00
	Ogien Artea	800,00	Zure txokoa	500,00
	Databost	339,95	Les Villes jatetxea	270,20
	Zure Txokoa	800,00		
Les Villes jatetxea	500,00			
	Guztira errotuluak	4.697,23 €	Guztira web guneak	2.525,73 €

KIROLA

Aurrekontua

0 €

Gastua

0 €

ESPARRUA	KIROLA		
HELBURU ESTRATEGIKOA	1. KIROL TALDEETAKO ENTRENAMENDU ETA JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU		
ESTRATEGIA	1.3. Hitzarmenak eginez		
EKINTZA:	1.3.1. Eskolen eta kirol taldeen arteko hitzarmenak egin		
Xede taldeak	Kirol taldeak, ikastetxeak		
Helburua	Kirol taldeak eta ikastetxeak entrenamenduak eta kirol jarduerak euskaraz egin		
Deskribapena (prozedura, berri- tasuna...)	DMAtik bideratuko den ekintza da. 2013an kirol arloaren azterketa egingo da eskualdean eta, ondoren, egoeraren arabera hitzarmenak proposatuko dira. Beraz, hitzarmena sinatuko da herriko klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua, DMA		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena DMAko Euskara Zerbitzutik harremanetan ipintzea Durangaldeko kirol taldeekin.	Emaitza	Inkesta prestatu da eta kirol taldeei bidali zaie
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		
Aurrekontua	Gastua	Egoera	Egiten
Balantze kualitatiboa	Inkestak bidalita daude. Harremanak izan dira eskualdeko zenbait kirolarirekin asmoaren berri eman eta elkarrekin plan bat egiteko. 2014an hasiko gara elkarteekin harremanetan.		

ESPARRUA	KIROLA
HELBURU ESTRATEGIKOA	1. KIROL TALDEETAKO ENTRENAMENDU ETA JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU
ESTRATEGIA	1.4. Diru-laguntza eta aholkularitza emanez
EKINTZA:	1.4.1. Diru-laguntza deialdia "Euskara sustatzeko egitasmoak"

Xede taldeak	Kirol taldeak, ikastetxeak		
Helburua	Kirol taldeak eta ikastetxeak entrenamenduak eta kirol jarduerak euskaraz egin		
Deskribapena (prozedura, berri- tasuna...)	<p>"Euskara sustatzeko diru-laguntza" deialdia egiten du Udalak. Dirulaguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: irabazi asmorik gabeko Durangoko pertsona fisikoak, elkarteak, ikastetxeak eta entitateak, baldin eta deialdi honetan zehazten diren moduko ekimenak burutzen badituzte.</p> <p>Dirulaguntza hauen xede diren programek eta jarduerak euskararen normalizazioari zuzendutakoak izan behar dute, eta urteko programak nahiz ekintza puntualak izan daitezke, beti ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, Udalak onartuta duen 2013-2017 epealdirako Plan Estrategikoak jasotzen diren esparruekin loturiko ekimenak garatzen badituzte: Familia transmisioa, Euskalduntzea eta alfabetatzea, Irakaskuntza, Merkataritza eta ostalaritza, Aisia eta kirola, Immigrazioa, Kulturgintza eta Hedabideak. Halaber, Durangokoak ez diren entitateek ere eskatu dezakete dirulaguntza, baldin eta euskara sustatzeko ekimenen bat burutzen badute Durangon.</p>		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Diruz lagundutako egitasmo kopurua Egitasmoen hartzaile kopurua	Emaitza Aurten ez da eskaririk jaso	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		
Aurrekontua	Gastua	Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa			

ESPARRUA	KIROLA
HELBURU ESTRATEGIKOA	1. KIROL TALDEETAKO ENTRENAMENDU ETA JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU
ESTRATEGIA	1.4. Diru-laguntza eta aholkularitza emanez
EKINTZA:	1.4.2. Diru-laguntza deialdia "argitalpenetan euskararen erabilera sustatzeko"

Xede taldeak	Kirol taldeak, ikastetxeak		
Helburua	Kirol taldeen eta ikastetxeen argitalpenetan euskara normaltasunez erabili		
Deskribapena (prozedura, berri- tasuna...)	"Euskara sustatzeko diru-laguntza" deialdia egiten du Udalak. Dirulaguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: irabazi asmorik gabeko Durangoko elkarteak, ikastetxeak eta entitateak, baldin eta deialdi honetan zehazten diren moduko aldizkako argitalpenak ateratzen badituzte eta izena emanda badaude Durangoko Udaleko Elkarten Erregistroan. Beraz, diru-laguntzak emango dira, urtealdi honetan zehar, irabazi asmorik gabeko Durangoko elkarte eta entitateek argitaratuko dituzten "Udalerri mailako aldizkako argitalpenetan euskararen erabilera sustatzeko"		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Diruz lagundutako egitasmo kopurua	Emaitza Aurten ez da eskaririk jaso	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		
Aurrekontua	Gastua	Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa			

ESPARRUA	KIROLA
HELBURU ESTRATEGIKOA	1. KIROL TALDEETAKO ENTRENAMENDU ETA JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU
ESTRATEGIA	1.4. Diru-laguntza eta aholkularitza emanez
EKINTZA:	1.4.3. Diru-laguntza deialdia "euskarazko errotulu eta webetarako"

Xede taldeak	Kirol taldeak, ikastetxeak		
Helburua	Kirol taldeen kanpo errotulazioa eta web guneetan euskara normaltasunez erabili		
Deskribapena (prozedura, berri- tasuna...)	<p>Durangoko Udalak kanpoko errotuluak eta web guneak euskaraz jartzen dutenei dirulaguntzak emateko deialdia arautu du. Honekin euskara idatziaren erabilpena esparru pribatura zabaldu nahi da, euskara idatziaren presentzia indartzeko diskriminazio positiboaren irizpideak aintzat hartuta. Kanpoko errotuluak euskaraz jartzeagatiko dirulaguntzen subjektu onuradunak izan daitezke: euren establezimendua Durangon kokatuta daukaten merkatariak eta ostalariak eta, halaber, udalerrri mailako elkarteak. Errotulazioa diogunean hauxe hartzen da kontuan: lokalaren kanpoaldean jarritakoa eta, halaber, toldoetan eta ibilgailu komertzialetan jarritakoa.</p> <p>Euskarazko web orriak euskaraz jartzeagatiko dirulaguntzen subjektu onuradunak izan daitezke: udalerrian lanean diharduten elkarte edo entitateek eta merkataritza eta ostalaritzako establezimenduak. Aurreko urteetan dirulaguntzak jaso zituzten erakundeak eta elkarteak ere aurkeztu ahal dira aurtengo dirulaguntza deialdira. Horretarako, aurreko dirulaguntza jaso zutenetik egindako berrikuntzen berri eman beharko dute.</p>		
Arduraduna, aliantzak...	Euskara Zerbitzua		
Adierazleak (eragin eremua, kopuruak, parte hartzaileak, adina, aleak...)	Aurreikuspena Diruz lagundutako egitasmo kopurua	Emaitza Aurten ez da eskaririk egin	
Ekintzaren urrats nagusiak eta egutegia	Maiatza: Iraila: Urria: Abendua:		
Aurrekontua	Gastua	Egoera	Eginda
Balantze kualitatiboa			

ESPARRUA	KIROLA
HELBURU ESTRATEGIKOA	2. KIROL EKITALDI PUBLIKOETAN EUSKARAREN PRESENTZIA BERMATU
ESTRATEGIA	2.3. Laguntzak eta aholkularitza emanez
EKINTZA:	2.3.1. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eman

Xede taldeak	Kirol taldeak, ikastetxeak		
Helburua	Kirol talde eta kirol ekitaldien antolatzaileei laguntza eman euskara erabil dezaten		
